

ETXAGOK AMA BEGIRA

2012KO EKAINA - 160. ZKIA.

*paperazko
hegazkinen
hilabetea*





gazte
INFORMAZIO PUNTUA

Ohartze Gazteakua - Foruen enparantza 4
943 718 257 - gazteinformazioa@oinati.net



UDAKO FESTIBALAK

Behin ekainean sartuta, zuetako asko uda planifikatzen hasiko zineten dagoeneko, eta nola ez, plangintza horietan behin baino gehiagotan agertuko dira udako musika festibalak. Hona hemen aurtengoan zerrendatxo bat:

- BBK Live: Uztailak 12-13-14 www.bilbaobbklive.com
Donstiako Jazzaldia: Uztailak 19-23 - www.heinekenjazzaldia.com
Gasteizko jazzaldia: Uztailak 16-21 - www.jazzvitoria.com
Getxoko Jazzaldia: Uztailak 4-8 - www.getxo.net
Azkena Rock: Ekainak 14-15-16 - www.azkenarockfestival.com
EH Zuzenean: Ekainak 29-30-uztailak 1 - www.ehz-festibala.eu
Sonar Barcelona: Ekainak 14-15-16 - www.sonar.es
FIB (Benicassim): Uztailak 12-15 - www.fiberfib.com
Ebrovisión: Abuztuak 30-31, Irailak 1 - www.ebrovision.com

Informazio gehiago bilatzeko, ondoko web-guneak begiratu:

www.laganzua.net/festivales/ (musika independentea)
www.festivales.com



11

EKAINAK 29, OSTIRALA

19:00ETAN TOPALEKUAN

Kantatzeko

DVDaren aurkezpena egin go du
Urko Egaña egileak Gaztelekuan.

Urko Egaña azpeitiar-oiñatiarrak ekainaren 29an aurkeztuko du Gaztelekuan "11 Kantatzeko" izeneko ipuinbertso bilduma. DVDa bi zatitan banatzen da: alde batetik ikus-entzunezko atala biltzen du, marrazki bizidunek eta bertsoek osatua. Bestetik, karaokea aurkituko dugun. Zorteko lanak eman duen fruitua da "11 Kantatzeko", eta hainbat lagunez inguratuta borobildu du Urko bertsolariak lan hau.



ETXAGOK AMA BEGIRA - 2012KO EKAINA - 160 ZKIA.

TOPALEKURA ONGI-ETORRI DISKOFESTA

Ekainak 22, ostirala, arratsaldeko 18:00etan

Aurten DBH-ko ikasketak hasi behar badituzu, jakingo duzu honez gero Topalekuan sartzeko adinean zaudela. Eta hau ospatzeko, Diskofesta bikaina antolatu dugu SOUND PROYECT Dj. bikotearen eskutik, zuri eta zure lagunei ongi-etorri beroena eman nahian.



KUBORA ONGI-ETORRI FESTA

Ekainak 23, zapatua, arratsaldeko 17:00etan

Aurten 8 urte bete edo betetzen badituzu, ordea, Gaztelekuko beste gune bateko erabiltzaile izan zaitezke aurrerantzean: Kubokoa. Zatoz, beraz, zuri ongi-etorria emateko Kuboan antolatu dugun festara




PAPERERAZKO HEGAZ

Japonian eta Europa iparraldeko herrialde batzuetan origamia irakasten da eskolatan beste edozein ikasgairen parean. Izan ere, papera tolestuz irudiak sortzearen arte honek burmuinaren beste esparru batzuk lantzen laguntzen omen die gaztetxotatik praktikatzan dutenei, garatzen den abilitatea eta zehaztasuna ahaztu gabe. Hoietaz gain, sormena lantzen da, eta errealaren eta abstraktuaren arteko koordinazioa garatzen du.

Guk origamiaren esparru konkretu baten inguruan egiten dugu txapelketa hau: aerogami, edota paperezko hegazkinak egitearena, alegia. Laugarren edizioa izango da Topalekukoa eta bosgarrena Kuboan ospatuko dena. Kontuan izan hegaldia bera ez ezik, sortzen duzuen hegazkinaren diseinua ere garrantzitsua izango dela txapela jantzi nahi baduzue.

Animatu zaitezte parte hartzera!



ETXAGOK AMA BEGIRA - 2012KO EKAINA - 160 ZKIA.

KINEN TXAPELKETA



KUBOKO PAPERETZKO HEGAZKINEN V. TXAPELKETA
Ekainak 24, domeka, 17:00etan

TOPALEKUKO PAPERETZKO HEGAZKINEN IV. TXAPEL.
Ekainak 29, ostirala, 18:30etan

Izenemate epea zabalik izango da txapelketa hasi arte



GAZTELEKUA HERRIJORRAN

KUDEAKETA EREDU EZBERDINEN GAINEAN MAHAI-INGURUA

Gaztelekuaren inguruko eztabaidagune bilakatu den Herrijorran prozesuak mahai-inguru honetara gonbidatu nahi ditu herritar guztiak, kudeaketa eredu ezberdinak ezagutu, eta beste toki batzutan izan dituzten esperientziak ezagutzeko. Bertan izango dira Gernikako Astra gaztetxeko, Elorrioko Arriola Kultur Elkarteko eta Arrasateko Gaztetxeko ordezkariak.

NON: Oñatiko Gaztelekuan

DATA: Ekainak 8, ostirala

ORDUA: 19:00etan